

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

15715 12/2017 Legea, abenduaren 28koa, Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea erreformatzen duen urriaren 5eko 42/2015 Legea aldatzen duena Ministerio Fiskalaren komunikazio-egintzen eraginkortasuna bermatzeko.

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

HITZAURREA

Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 151.2 artikulua —urriaren 5eko 42/2015 Legearen bidez emandako indarreko idazkeran— ezartzen du Ministerio Fiskalarentzako komunikazio-egintzak eginbidean edo hartu izana egiaztatzen duen ordezkagirian jasota dagoen harrera-dataren hurrengo egun baliodunean hartuko direla egindakotzat, baldin eta komunikazio-egintza 162. artikuluan ezarritako bitartekoen bidez eta betekizunekin egin bada.

Azken manu horrek, orobat, komunikazio-egintzak bitarteko elektronikoz, informatikoz eta antzekoez egiteko araubidea xedatzen du. Logikoa denez, jakinarazpenen eta komunikazioen efikaziari buruzko aurreikuspenen oinarria da jasota geratzea komunikazio-egintzak zuzen igorri direla bitarteko horiekin, eta horrek berekin ekarri behar du idazkiak, dokumentuak eta alegazioak zuzen eta egiaztatzeko moduan igortzea.

Estatuko Fiskaltza Nagusiak agerian jarri du justizia digitalaren inplementazio-mekanismo konplexura egokitzeko beharra dagoela. Behar horrengatik, hain zuzen ere, 42/2015 Legearen laugarren xedapen iragankorrak salbuespen-araubide bat ezarri zuen 2018ko urtarrilaren 1era arte, Ministerio Fiskalarentzako komunikazio-egintzei zegokienez, eta finkatu zuen Prozedura Zibilaren Legearen 151.2 artikuluan ezarritako epea hamar egun naturalekoa izango zela halako egintzetarako.

Harrezkero igarotako denborak argi utzi du Ministerio Fiskalak esku hartzen duen prozeduren izapidetzea, azterketa eta erabakiak hartzeko modua bereziak direla eta bulego fiskalak zenbait berezitasun dituela; izan ere, bulego fiskalak kudeaketa prozesaleko eta komunikazioko sistema ezberdinak erabiltzen dituzten lurraldeetan jarduten du. Horrek guztiak bidezko egiten du garai hartan behin-behinekoz eta arrazoi teknologikoak tarteko hartu zen neurria luzatzea.

Artikulu bakarra. *Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea erreformatzen duen 42/2015 Legea, urriaren 5ekoa, aldatzea.*

Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea erreformatzen duen urriaren 5eko 42/2015 Legearen laugarren xedapen iragankorraren 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratuko da idatzita:

«1. 2020ko urtarrilaren 1era arte, Ministerio Fiskalarentzako komunikazio-egintzei dagokienez, hamar egun naturalekoa izango da 151.2 artikuluan ezartzen den epea.»

Azken xedapen bakarra. *Indarrean jartzea.*

Lege hau 2018ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

Horrenbestez,

Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madrilen, 2017ko abenduaren 28an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
MARIANO RAJOY BREY